

ETIKETATZE EKOLOGIKOA

Ekoetiketak edo etiketa ekologikoak pertsonentzat osasungarri diren eta ingurumena errespetatzen duten produktuei eta zerbitzuei jartzen zaizkie. Kontsumitzaileek horrelako produktuak erostea erabakitzen dutenean, eragina dute merkatuan eta irizpide ekologikoagoz jokatzera bideratzen dute.

1. ELIKAGAIEN ETIKETAK

- EURO-HOSTOA, Europako Etiketa Ekologikoa



Euro-hostoa Europako Batzordeak sortutako logotipoa da eta, 2010eko uztailaren 1etik aurrera, derrigorrezkoa izango da. Etiketa horren bidez ziurtatuko dira EBko Estatu kideren batean landu eta ontziratu diren eta ezarritako arauak betetzen dituzten produktu ekologikoak.

Etiketa horrek, besteak beste, honakoak bermatuko ditu:

- Produktu horren osagaien %95, gutxienez, metodo ekologikoen arabera ekoitzi dela.
- Produktu hori kontrol ofizialeko sistemak emandako xedapenei lotzen zaiela.
- Produktu hori zuzenean datorrela ekoitzi eta edo eraldatu duenarengandik eta ontzi zigilatuan aurkezten dela.
- Produktu horrek ez duela genetikoki eraldatutako organismorik (GEO).

Informazio gehiago Europako Batzordearen web ofizialean:

http://ec.europa.eu/agriculture/organic/consumer-confidence/logo-labelling_es

- **Nekazaritza Ekologikoaren Etiketa**



Autonomia Erkidego bakoitzean bada batzorde arautzaile bat produktuei ziurtagiria eman eta kontrolatzen dituen. Erkidego guztietan oso antzeko bereizgarria erabiltzen da kontsumitzaileak errazago identifikatu dezan.

Euskadin ziurtatuta dauden elikagaiak Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren (ENEK) zigilua daramate. 2010etik, Europako zigilu bakarra ere badaramate.

Sintesi bidezko ongarririk edo pestizidarik erabili ez dela ziurtatzen du, eta abeltzaintzari dagokionez, mugatu egiten du medikamentuen erabilera.

Informazio gehiago ENEK-en web ofizialean (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua):

<http://www.eneek.org/>

- **EUSKO LABEL Etiketa**



Eusko Label deritzon markak Kalitatearen K zeinu grafikoa du ezaugarri eta EAEn ekoitzi, eraldatu eta/edo elaboratu diren nekazaritzako elikagaiak identifikatzeko eta bereizteko balio du; betiere, produktu horiek batez besteko orokorra baino kalitate hobea eta espezifikotasun eta berezitasun

handiagoa izan behar dute. Horren helburuak honakoak dira:

- Kalitate-maila zorrotza bermatzea kontsumitzaileari.
- Produktuen jatorria eta benetakotasuna ziurtasun osoz identifikatzeko baliagarri izatea kontsumitzailearentzat.
- Ekoizleen lana babestea
- Kalitatezko ekoizpena sustatzea.

Eusko Label produktu guztiak Araudi Tekniko bati lotuta daude eta arau horiek betetzen direla bermatzeko kontrolak dituzte.

Informazio gehiago Kalitatea Fundazioaren web orrian: <http://www.euskolabel.net/>

- MSC-Marine Stewardship Council: Arrantza iraunkorra



MSC erakunde independentea da, mundu mailakoa eta irabazi asmorik gabekoa, arrantzaren gehiegizko ustiapenari irtenbidea bilatzeko eratua.

MSCk ingurumenarekiko arduraz jokatzen duten arrantza-jarduerak ziurtatzen ditu eta etiketa urdin bereizgarria ematen die hortik ateratako produktuei. Etiketa horrek bermatu egiten du produktua ondo kudeatutako arrantzatik datorrela eta ez duela gehiegizko ustiapenak eragiten duen ingurumen arazorik sortzen.

Informazio gehiago MSCren web ofizialean:

<http://www.msc.org/>

2. ELIKAGAIAK EZ DIREN PRODUKTUEN ETIKETA GENERIKOAK

- Europako Batasuneko Etiketa Ekologikoa: “Lorea”



Europako etiketa ekologiko hau 1992an sortu zen; izatez, borondatezko sistema independente bat da eta ingurumena errespetatzen duten ondasun eta zerbitzuen kontsumoa nahiz ekoizpena sustatzen du Europako Batasunean (EB), Norvegian, Islandian eta Liechtensteinen. Europako kalitate-zigilu hori emateko, produktuaren edo zerbitzuaren azterketa zientifikoa egiten da eta industria eta merkataritzako ordezkariak, talde ekologistek eta kontsumitzaile elkarteek ebaluatzen dute.

Prozedura horren bidez produktuaren bizi osoa kontrolatzen da, lehengaiak eskuratzen direnetik hondakinen kudeaketaraino. Edozein ondasun edo zerbitzu-mota izan daiteke etiketa honetarako hautagai, ondoko hauek izan ezik: elikagaiak; edariak; farmaziako produktuak; zenbait substantzia edo prestakin arriskutsu eta Europako zuzentarau jakin batzuetan zehaztuta dauden medikuntzako gailu batzuk.

Informazio gehiago: <http://ec.europa.eu/environment/ecolabel/>

- AENOR Ingurumena



Espainiako Normalkuntza eta Ziurtagiri Elkarteak (AENOR) bere etiketa ematen die Espainian fabrikatu eta, irizpide ekologikoen arabera, UNE borondatezko arau teknikoak egokitzen zaizkien produktuei.

Ziurtagiria duten produktuek beste produktu homologo batzuek baino ingurumen-eragin txikiagoa dutela bermatzen dute, bizi-zikloaren azterketa egin baitzaie. Honako produktuei ematen zaie: pinturak eta bernizak, zabor-poltsak, erreprografia makinak, paperezko produktuak... Etiketa hori 1993an sortu zen eta 11 produktu eta zerbitzu kategoriatarako irizpideak ditu, produktuaren bizi-zikloari buruzko irizpideak, hain zuzen.

Informazio gehiago: <http://www.aenor.es/>

3. HONDAKINEN BALIOZTAPEN ETIKETAK

- Puntu Berdedun Etiketa



® Produktuak biltzeko materiala, kudeaketa sistema integral baten arabera jasotzen eta birziklatzen dela adierazten du.

Materiala berreskuratzea bermatzen du eta esan nahi du fabrikatzaileak ordaindu egin duela produktu horren ontzia birziklatzeko eta kutsagarria ez izateko.

- Moebiusen triangelua: Birziklatua eta/edo birziklagarria



Etiketa horrek bi esanahi ditu: batetik, ontzia edo produktua birziklatutako materialez egina dela adierazten du, eta, bestetik, ontziaren produktua birziklagarria dela.

- SIGRE ikurra



SIGRE Medikamentua eta Ingurumena irabazi asmorik gabeko erakundea da eta etxeke botiken ontzien ingurumen-kudeaketa egokia bermatzeko sortu zen, baita sendagai horien hondakinena ere.

SIGREren jarduera botiken hondakinak biltzetik hasten da; horretarako, edukiontzi berezi batzuk daude farmazia bulegoetan (SIGRE Puntuak) eta kontsumitzaileek horra botatzen dituzte behar ez dituzten edo iraungita dauden medikamentuak eta horien ontzi hutsak.

Informazio gehiago SIGRE, Medikamentua eta Ingurumena web orrian:
<http://www.sigre.es/>

4. BIDEZKO MERKATARITZAREN ETIKETA



FAIRTRADE Zigilua duten produktuak Bidezko Merkataritzaren estandarren arabera merkaturatzen dira. Horrek esan nahi du:

- Hegoaldeko ekoizleei soldata duina ordaindu zaiela eta kontsumitzaileei bermatzen zaie ekoizle horiek bidezko prezioa jaso dutela.
- Hegoaldeko ekoizleen lan-baldintzak hobetu direla, giza eskubideak eta ingurumena errespetatuz: bortxazko lanik gabe edo haurren lanik gabe, bazterketarik gabe, askatasun sindikala errespetatuz eta ekosistemak zainduta.
- Hegoaldeko ekoizleen bizi-baldintzak hobetu direla, komunitatean inbertsioak egiteko sarien bidez (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, prestakuntza) eta Hegoaldeko ekoizle-erakundeen autonomia indartuz eta segurtasun iraunkorra emanez.
- Produktuen jatorri “bidezkoa” bermatzen dela, kontrol erregularren bidez.
- Produktuen kalitateari arreta berezia ematen zaiela: artisau-metodoz landu diren kalitatezko produktuek bakarrik lortzen dute FAIRTRADE zigilua.

Non erosi daitezke Bidezko Merkataritza produktuak?

Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundearen web orrian informazioa duzu Bidezko Merkataritzak Espainiako estatuan dituen denda, inportatzaile eta ekimenei buruz:<http://www.comerciojusto.org/stakeholders/>

5. EFIZIENTZIA ENERGETIKOAREN ETIKETAK

- Etxeko tresnen efizientzia energetikoaren etiketatzea

Etiketatzeko energetikoak tresna elektrikoaren datu garrantzitsuenak eta ura eta energia erabiltzeko aginduak biltzen ditu. Etxeko tresnen kontsumoa 7 mailatan sailkatzen du, efizientzia energetikoaren arabera. A letrak adierazten du etxetresna elektrikoaren efizientzia handikoa dela; G letrak, berriz, efizientzia gutxikoa dela. Hauek dira, besteak beste, kalifikazio energetikoaren etiketa eraman behar duten etxeko tresnak: hozkailuak, izozkailuak eta tresna konbinatuak, garbigailuak, lehorgailuak eta tresna konbinatuak, ontzi-garbigailuak, labeak (elektrikoak), ur-berogailuak eta ur beroa biltzeko tresnak, argi-iturriak eta aire girotuaren aparatuak.

Eraginkortasun handia	Energia-klasea	Energia-kontsumoa	Ebaluazioa
A	A	<%55	Energia-kontsumo txikia
B	B	%55-75	
C	C	%75-90	
D	D	%90-100	Energia-kontsumo ertaina
E	E	%100-110	Energia-kontsumo handia
F	F	%110-125	
G	G	>%125	
Eraginkortasun txikia			

Horretaz gain, 2004an, A+ eta A++ kategoriak ezarri dira oso kontsumo gutxiko hozkailu eta izozkailuentzat. Eranskailuan A+ edo A++ agertzen dira irizpide guztiak betetzen dituenean, baina horrek ez du esan nahi etiketa estandarren osagaiak direnik.

- **Ofimatika-tresnen efizientzia energetikoaren etiketatzea “Energy Star”**

Europako Batasunak “Energy Star” etiketak dituen irizpideak onartu ditu; etiketa hori Ameriketako Estatu Batuetako Ingurumena Babesteko Agentziak (EPA) sortu zuen hainbat tresnaren ziurtapen energetikoa egiteko; esaterako, monitore, ordenagailu eta sistema eragileena edo eskaner, fotokopiagailu eta fax aparatua.




Etiketa horrekin datozen tresnek energia aurrezteko sistemak dituzte; esate baterako, denbora-tarte jakin batean erabili gabe utziz gero, pausagune-posizioan gelditzen dira. Posizio horretan aparatuak askoz energia gutxiago kontsumitzen du, horrek dakarren energia eta diru-aurrezpen guztiarekin.

Informazio gehiago: www.eu-energystar.org/es/es_042p.shtml

- **Automobilien efizientzia energetikoaren etiketatzea**

Energetikoki efizienteak diren automobilak erosiz gero eta zentzuzko erabilera egiten bada, Kyotoko Protokoloan CO₂ isurpenei buruz ezarri ziren helburuak betetzen laguntzen da. Efizientzia energetikoari buruzko etiketa jartzeak helburu zehatza dauka: turismo berrien erregai-kontsumoa eta CO₂ isurpenak zenbatekoak diren jakinaraztea.

Horren osagarri gisa, aukeran beste etiketa bat ere jarri daiteke, autoa kontsumo konparatiboaren arabera sailkatzeko. Borondatezko etiketa horren bidez, autoaren kontsumo ofiziala konparatzen da azalera eta erregai berdineko autoen batez besteko balioarekin, Espainiako estatuko merkatuan dauden salmenta-postu eta fabrikatzaile guztien artean.


DERRIGORREZKO ETIKETA EREDUA	BORONDATEZKO ETIKETA EREDUA	
<p>Salmenta puntu guztietan doan eskuratu daiteke erregai-kontsumoa eta CO2 isurpenak adierazten dituen gida; hor agertzen dira automobil turismo berrien modelo guztien datuak.</p>	Efizientzia energetikoa	
	Marka Modeloa Erregai mota Transmisioa	X Y Gasolina Eskuzko
	Erregai-kontsumoa (litroak 100 kilometroko) Baliokidetasuna (kilometroak litroko) CO2 isurpena (gramoak kilometroko)	6 litro/100 km 16,7 km/litro 144 g/km
	Marka/Modeloa: Erregai mota: KONTSUMO OFIZIALA (80/1268/EEE ZUZENTARAUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA)	Kontsumo konparazioa (Espainian saltzen diren tamaina bereko autoen batez bestekoarekin) 
Gidakera	1/100 km	
Hirian		
Errepidean		
Batez besteko haztatua		
CO2 ISURPEN ESPEZIFIKO OFIZIALAK (80/1268/EEE ZUZENTARAUAREN ARABERA)		
g/km		
<p>Erregai-kontsumoa eta CO2 isurpenak ez daude bakarrik ibilgailuak duen errendimenduaren mende; gidatzeko moduak eta beste faktore batzuek ere eragina dute. CO2 da negutegi efektuaren eragile nagusia eta horrek dakar planetaren berotzea.</p>	<p>*Salmenta puntu guztietan doan eskuratu daiteke erregai-kontsumoa eta CO2 isurpenak adierazten dituen gida; hor agertzen dira automobil turismo berrien modelo guztien datuak.</p> <p>* Erregai-kontsumoa eta CO2 isurpenak ez daude bakarrik ibilgailuak duen errendimenduaren mende; gidatzeko moduak eta beste faktore batzuek ere eragina dute. CO2 da negutegi efektuaren eragile nagusia eta horrek dakar planetaren berotzea.</p>	

Azalera berdineko autoen batez bestekoarekin duen alde horri balio jakin bat eta letra bat ematen zaio:

- A, B eta C-k (kolore berdeak): batez bestekoak baino gutxiago kontsumitzen dute.
- D-k (kolore horia): batez besteko erregai-kontsumoa dauka.
- E, F eta G-k (kolore gorriak): batez bestekoak baino gehiago kontsumitzen dute.

- **Eraikinen efizientzia energetikoaren etiketatzea**

Ziurtagiri horren bidez, etxebizitza bat kalitatezkoa eta eroso dela bermatzen da eta energia aurrezten duela.



Efizientzia energetikoari buruzko arauak 2006tik hona egindako eraikin berri guztiei aplikatzen zaizkie, baita 1.000 m²-tik gora duten eraikin zaharrei ere, zaharberritze edo eraldatze-lan handiak egiten badira.

Eraikin baten efizientzia kalkulatzeko, honako faktoreak hartzen dira kontuan: isolamendu termikoa, berokuntza sistema eta aire girotua, aireberritze naturala eta argiztapena, eta eguzkiaren bidezko berotze pasiboa.

6. BASO ZIURTAGIRIEN ETIKETAK

- FSC -Forest Stewardship Council (Basogintzako Administrazio Kontseilua)-



Basogintzako produktuen nazioarteko etiketa horrek bermatu egiten du produktu jakin bat FSCren basogintzako printzipio eta irizpideen arabera kudeatutako baso batekoa dela. Kontseilu horrek basogintzaren kudeaketa iraunkorra sustatzen du, hau da, ingurumenerako onargarria, sozialki onuragarria eta ekonomikoki bideragarria izatea.

FSC gobernuz kanpoko erakundea da, irabazi asmorik gabekoa, eta honako hauek osatzen dute: zuraren industriako ordezkariak, baso-jabeak, indigena-taldeak eta GKEak. Nazioarteko onarpena dauka, bai talde ekologisten aldetik, bai GKEen aldetik, eta bereziki, Greenpeace eta Adena-WWFren aldetik.

FSCren ziurtagiriak PEFCk baino irizpide zabalagoak eta zorrotzagoak ezartzen ditu; gainera, irizpide horiek erakundeetako eragileak, eragile ekonomikoak eta gizarte eta ingurumenekoak onartutakoak dira.

FSCren ziurtagiria duten produktuei buruzko informazio gehiago: <http://www.es.fsc-spain.org/>

PEFC -Programme for the Endorsement of Forest Certification-



PEFC delakoak GFS ziurtagiria (Basogintzaren Kudeaketa Iraunkorra) ematen du, basogintzaren antolamendua hitzartutako arauak betez egiten dela egiaztatzen duena. Bestalde, baliagarria izan daiteke ingurumena errespetatzen duten jardunbideak darabiltzan ekoizle baten adierazpena balioztatzeko, edota zurgintzako produktuei buruz eta haien jatorrizko basoari buruzko datuak objektiboki egiaztatuta emateko.

Informazio gehiago PEFCren web ofizialean:

<http://www.pefc.es/>

7. EHUNGINTZAKO PRODUKTUEN ETIKETAK

- “Öko-Tex 100” bereizgarria



Öko-Tex 100 eta Öko-Tex 1000 estandarrak Europan ezarritako bereizgarriak dira, eta horien bidez, bermatu egiten da ehun-gaietan ez dela substantzia kaltegarrikerik erabili eraldaketa prozesutik hasi eta kontsumitzailearen eskuetara iritsi arte.

Informazio gehiago: <http://www.oeko-tex.com/>

- Made in Green:



AITEXek (Ehungintzako Ikerketa Elkartea) sortutako zigilu berdea, ehun-gaiak ekologikoak eta sozialki arduratsuak direla ziurtatzen duena. Zigilu horren bidez, produktuaren trazabilitate guztia ingurumena eta langileen eskubide unibertsalak errespetatzen dituzten zentroetan egin dela

ziurtatzen da.

Informazio gehiago:

<http://www.madeingreen.com/>

- EKO, sustainable Textile



EKO marka SKAL Internacional Fundazioak ematen du. Ziurtapen programa funtsezko bi oinarri ditu. Lehena: zuntz guztiek naturalak eta modu iraunkorrean hazitakoak izan behar dute.

Bigarrena: ekoizpen-prozesu osoa hartu behar da kontuan eta prozesu horretako urrats bakoitzak irizpide jakin batzuk bete behar ditu.